

2017/18 EUSKAL HERRIKO KOPEN BERARIAZKO ARAUTEGIA

GIZONEZKOEN EUSKAL HERRIKO KOPA

COLEH-ak, **Euskal Herriko 2017/2018 Gizonezkoen Maila Absolutuko arautegia** aplikatuz, honako hau zehaztu du:

1. Txapelketa honi **uko egiteko** epea behin amaituta, honako taldeek eman diote ezezkoa txapelketari:
 - CW NAVARRA 'C'
 - LAUTADA URPOLO GASTEIZ IKE
 - ADNW SANTOÑA
 - CW CASTELLAE BURGOS
2. COLEH-ak **"4ko Finalaren" antolaketa DEPORTIVA NÁUTICA PORTUGALETERi** esleitu dio. Bere gizonezkoen talde absolutuak "4ko Finalerako" plaza jasoko du zuzenean, arautegi orokorrak agertzen duen bezala.
3. Uko egin dioten taldeak kontuan hartuta eta arautegiak txapelketatik at uzten dituen taldeak baztertuta, Euskal Herriko Gizonezko Absolutuen 2017/2018 Kopa **15 taldek jokatu dute**, "4ko Finalaren" antolatzailea alde batera utzita. Beraz, parte-hartzaileen sailkapeneko aurreneko **9 taldeak final 1/8etako kanporaketarako sailkatuko dira** zuzenean. **Gainerako 6 taldeek atariko kanporaketa jokatu dute.**
4. Parte-hartzaileen sailkapena ezartzeko irizpideak honako hauek dira:
 - **1.tik 9.erako postuak** -> Parte hartuko duten taldeen artean, **Lehenengo Mailako lehen itzuliko (11. jardunaldiko) sailkapen-ordenarekin bat egingo dute** postu horiek ("4ko Finalaren" antolatzailea alde batera utzita), une horretara arte jokatuak partidu guztiak zenbatuta.
 - **10.etik 15.erako postuak** --> Parte hartuko duten taldeen artean, **Bigarren Mailako 7. jardunaldiaren amaieran duten sailkapen-ordenarekin bat egingo dute** postu horiek, une horretara arte jokatuak partidu guztiak zenbatuta. Beraz, parte hartzaileen sailkapeneko postu horiek horrela gelditu dira:
 10. - FORTUNA KE
 11. - CNW SESTAO
 12. - LAURO IKASTOLA
 13. - HERNANI KE
 14. - MUNGIA IT
 15. - CN EASO

5. "4ko Finalaren" aurreko kanporaketa guztiak parte-hartzaileen sailkapenean hobeto sailkatutako taldearen etxean jokatuko dira, hurrengo datetan:
- **Atariko kanporaketa → 2017ko abenduaren 23an**
 - **Final 1/8 → 2018ko urtarrilaren 6-7an**
 - **Final 1/4 → 2018ko urtarrilaren 13-14an**
 - **4ko Finala → 2018ko urtarrilaren 20-21ean**
6. **Atariko kanporaketaren** partiden **zozketa** abenduaren 12an egingo da, eta final zortzirenetako, final laurdenetako eta finalerdietako gainerako kanporaketena **abenduaren 26an**.

EMAKUMEZKOEN EUSKAL HERRIKO KOPA

COLEH-ak, **Euskal Herriko 2017/2018 Emakumezkoen Maila Absolutuko arautegia** aplikatuz, honako hau zehaztu du:

1. Txapelketa honi **uko egiteko** epea behin amaituta, honako taldeek eman diote ezezkoa txapelketari:
 - CW CASTELLAE BURGOS
2. COLEH-ak **"4ko Finalaren" antolaketa DEPORTIVA NÁUTICA PORTUGALETERi** esleitu dio.
3. Uko egin dioten taldeak kontuan hartuta, Euskal Herriko Emakumezko Absolutuen Kopak 9 parte-hartzaile izango ditu. Beraz, parte-hartzaileen sailkapeneko aurreneko 7 sailkatuak 1/4etako kanporaketarako sailkatuko dira zuzenean. Gainerako bi taldeek atariko kanporaketa jokatuko dute.
4. Parte-hartzaileen sailkapena ezartzeko irizpideak honako hauek dira:
 - 1.tik 9.erako postuak --> Parte hartuko duten taldeen artean, **Lehenengo Mailako lehen itzuliko (9. jardunaldiko) sailkapen-ordenarekin bat egingo dute** postu horiek, une horretara arte jokatuako partidu guztiak zenbatuta.

**NAFARROAKO IGERIKETA FEDERAZIOA
FEDERACIÓN NAVARRA DE NATACIÓN**

Paulino Caballero, 13, 31002 Pamplona – Iruña
Teléfono: 948227279 – Fax: 948220905
info@fnn-nif.com / www.fnn-nif.com

**EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA
FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN**

Julián Gaiarre, 50 – Bajo – 48004 BILBAO
Teléfono 94 459 81 96 – Fax 94 459 81 97
info@eif-fvn.org / www.eif-fvn.org

5. "4ko Finalaren" aurreko kanporaketa guztiak parte-hartzaileen sailkapenean hobeto sailkatutako taldearen etxean jokatuko dira, hurrengo datetan:

- **Atariko kanporaketa → 2018ko urtarrilaren 6-7an**
- **1/4 de final → 2018ko urtarrilaren 13-14an**
- **4ko Finala → 2018ko urtarrilaren 20-21ean**

6. Atariko kanporaketako, final laurdenetako eta finalerdiko partiden **zozketa abenduaren 26an** egingo da.